Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

4930

EBAZPENA, 2009ko uztailaren 27koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Andoainen (Gipuzkoa) dagoen Buruntzako Herrixka Gotortuaren Gune Arkeologikoa, monumentu-multzo izendapenaz, sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera eman eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioko 148.1.16 eta Estatutuko 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondareari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena, onartu zen.

Andoainen (Gipuzkoa) dagoen Buruntzako Herrixka Gotortuaren Gune Arkeologikoa duen interes historiko-arkeologikoa azterturik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko Ebazpen Proposamenari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Andoainen (Gipuzkoa) dagoen Buruntzako Herrixka Gotortuaren Gune Arkeologikoa, monumentu-multzo izendapenaz, sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera ematea. Horretarako, I. eranskineko mugaketa eta II. eranskineko deskribapena hartuko dira kontuan, bai eta III. eranskineko babes-araubidea ere.

Espediente honi hasiera ematearen ondorioz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak sailkatutako ondasunentzat ezartzen duen babes-araubidea aplikatuko zaio, behin-behinean, Buruntzako Herrixka Gotortuaren Gune Arkeologikoari.

Bigarrena.– Andoainen (Gipuzkoa) dagoen Buruntzako Herrixka Gotortuaren Gune Arkeologikoa, monumentu-multzo izendapenaz, sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeko hasitako espedientea jendaurrean jartzeko epeari hasiera ematea, I. eranskinean agertzen den mugaketan oinarrituz, II. eranskineko deskribapena kontuan hartuz eta babes araubide gisa III. eranskinean agertzen dena ezarriz. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 20 eguneko epea egongo da alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

4930

RESOLUCIÓN de 27 de julio de 2009, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se somete a información pública y audiencia a los interesados el expediente para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, a favor de la Zona Arqueológica del Poblado fortificado de Buruntza, en Andoain (Gipuzkoa).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural. En ejercicio de la competencia asumida, se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el interés histórico-arqueológico de la Zona Arqueológica del Poblado fortificado de Buruntza en Andoain (Gipuzkoa) y atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

Primero.– Incoar el expediente de declaración como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, a favor de de Zona Arqueológica del Poblado fortificado de Buruntza, en Andoain (Gipuzkoa), teniendo en cuenta la delimitación que en el anexo I de la presente Resolución se establece para la misma, así como la descripción que figura en el anexo II y el régimen de protección que se incorpora en el anexo III.

La incoación de este expediente determinará respecto a la Zona Arqueológica del Poblado fortificado de Buruntza, la aplicación provisional del régimen de protección previsto en la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, para los bienes calificados.

Segundo.– Abrir un período de información pública del expediente incoado para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, a favor de la Zona Arqueológica del Poblado fortificado de Buruntza, en Andoain (Gipuzkoa), en base a la delimitación que figura en el anexo I teniendo en cuenta la descripción del anexo II y estableciendo el régimen de protección que se incorpora como anexo III del mismo, para que durante el plazo de 20 días contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime

Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluetan jasotzen denari jarraiki. Aipaturiko espedientea Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Hirugarrena.– Andoaingo Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Sailei honako honen berri ematea: prozedura honi hasiera emateak eragin-peko aldeetan lur-zatiketak, eraikuntzak edo eraisketak egiteko udal-baimenen ondorioak eten egiten dituela, baita dagoeneko eman direnenak ere. Alde horietan ezinbestean eta gerorako utzi ezin daitezkeen lanak egin behar badira, betiere Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena eskuratu beharko da.

Laugarrena.– Indarrean dauden xedapenen arabera espedientearen izapideak jarraitzea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea Andoaingo Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 27a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1 de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Hacer saber al Ayuntamiento de Andoain, así como a los Departamentos de Cultura y Euskera y Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa que la incoación del presente procedimiento causa la suspensión de las correspondientes licencias municipales de parcelación, edificación o demolición en las fincas afectadas, así como de los efectos de las ya otorgadas. Las obras que por razón de fuerza mayor hubieran de realizarse con carácter inaplazable en las fincas precisarán, en todo caso, autorización de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Cuarto.– Continuar la tramitación del expediente de acuerdo con las disposiciones vigentes.

Quinto.– Notificar la presente Resolución al Ayuntamiento de Andoain, así como a los Departamentos de Cultura y Euskera y Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

Sexto.– Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de julio de 2009.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

I. ERANSKINA

Mugaketa

Aztarnategia behar bezala babesteko eta balioesteko, beharrezkoa da, herrixkak berak hartzen duen eremuaz aparte, haren inguruan perimetro bat ezartzea. Baloratutako perimetroa bere ingurune osoan 400 m-an dagoen sestra-kurbak markatzen duena da, ekialdean izan ezik, non hurrengo UTM koordenadetako puntu geografikoak elkartzen dituen lerroak limitea ezartzen duen: X: 580120,874 / Y: 4787903 (ipar-ekialdeko puntua); X: 580043,5/ Y: 4788025 (hego-ekialdeko puntua).

Mugaketa hau erabat justifikatuta dago, zeren egia izanik ere iparraldeko maldak era naturalean babesten duela herrixkaren alde hau, hegoaldetik eta ekialdetik harresiaren egitura 410 eta 420 metroetan dagoenez beharrezkoa baita bertatik tarte batez urruntzea, areago kontuan hartuta gaur egun ez dagoela inolako ikusizko erreferentzia garbirik begi bistan berezko muga antzemateko.

ANEXO I

Delimitación

Para asegurar la correcta protección y puesta en valor del yacimiento, además del área en la que se extiende, se entiende necesario establecer un perímetro alrededor del mismo. El perímetro valorado viene establecido por la curva de nivel del terreno que tiene una altitud de 400 metros en todo su entorno excepto al este, donde el limite queda establecido por la línea que une los puntos geográficos de coordenadas UTM siguientes: X: 580120,874 / Y: 4787903 (punto al NE); X: 580043,5 / Y: 4788025 (punto al SE).

Esta delimitación queda plenamente justificada dado que, si bien al norte el fuerte desnivel del terreno aseguraba de forma natural la protección de este flanco del poblado, por el lado sur y este, la estructura de la muralla se presenta entre los 410 y 420 metros de altitud, por lo que hay que distanciarse de la misma, máxime si se tiene en cuenta que no existe hoy en día ningún elemento fácilmente visible que pueda servir de referencia para percibir este límite a simple vista.


OHARRA - LEYENDA
POBLADO FORTIFICADO DE BURUNTZA. DELIMITACIÓN
BURUNTZAKO HERRIXKA GOTORLEKUA. MUGAKETA
Muralla / Harresia
Zona 1 / 1. eremua
Zona 2 / 2. eremua
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Plano / Plano: BURUNTZAKO HERRIXKA. POBLADO DE BURUNTZA
Udalerria / Municipio: ANDOAIN
Zenbakia / Número: 20/09
Lurralde / Territorio: GIPUZKOA
Eskualde aginte / Área Funcional: DONOSTIA-S. S.
Escala / Escala: 15.000
Data / Fecha: 23/07/2009
Fuerteko Zabala
Buruntza
1
2
LASARTE - ORIA
ANDOAIN

II. ERANSKINA

Deskripzioa

Buruntza Burdin Aroko herrixka gotortu bat da, txikia (ez da hektarea batera iristen), 441 m-ko garaieran kokatua, babeserako moldaturiko haitz batean. Iparraldera desnibel handiko malda bat duenez, zaila da bertatik gunera sartzea; hegoaldetik 2,55 m-ko zabalerako eta 215 m-ko luzerako hesi bat du, harresia alegia. Hesia kareharrizkoa da, ia arbastatu gabea, eta bi alde ditu, barrura eta kanpora begira daudenak. Hesiaren beraren barnea material betegarriz osatua dago.

Oso toki aldapatsua da, nahiz eta gune terrazatu gutxi batzuk dituen, hain zuzen ere bizitokiak jartzen baliatzen zituzten terrazak, gehienetan harresiari itsatsiak.

Herrixka dagoen mendi-puntaraino iristeko, gaur egun pista bat dago, baina pista horrek lehengo harresi zaharra apurtu zuen. Herrixka oso erraza da lokalizatzen, ez bakarrik mendi-gailurraren izenagatik (herrixka mendiaren izenarekin bataiatu da), baita haren erpinean hormigoizko gurutze ikaragarri handi bat dagoelako. Herrixkaren esparruan ere txantxarrezko hesia jarri da, jabetza-arlo desberdinak banatzeko. Mendi honen gaur eguneko aprobetxamendua hutsa da; ondorioz, bere kasa hazten da belarra, otea eta laharra, eta horrek enbarazu egiten du bertatik ibiltzeko, bai eta hondakin arkeologikoak ikusteko ere. Toki batzuetan, bertako haitza agertzen da lurgaineko azalera.

Inguruetan kareharria ustiatzeko bi harrobi daude, eta mendialde osoa oso eraldatuta dago, hainbesteraino non gaur egun herrixkaraino daraman mendi-pista bakarra aipaturiko ustiategiak berriki egina den.

ANEXO II

Descripción

Buruntza es un poblado fortificado de la Edad del Hierro, de escasas dimensiones, no llega a una hectárea, instalado a 441 metros de altura, en un farallón rocoso que facilita su defensa. Al norte presenta un importante desnivel que lo hace de muy difícil acceso y al sur se cierra mediante un muro de 2,55 metros de ancho y 215 metros de longitud, la muralla. Este muro, elaborado en caliza, prácticamente sin desbastar, presenta dos caras vista, al interior y exterior del recinto, siendo el grueso interior del mismo elaborado a base de relleno.

Presenta fuertes diferencias de nivel, y aunque escasas, existen algunas áreas aterrazadas, lugar que aprovecharan para instalar sus viviendas, preferiblemente adosadas a la muralla.

Para llegar hasta el alto en el que se emplaza el poblado, existe una pista que en su día rompió la muralla, siendo fácilmente localizable éste, además de por su denominación, la cual se ha tomado para nombrar el poblado, porque coronándolo se encuentra una cruz de tremendas dimensiones de hormigón. Dentro del área del poblado también se han colocado vallas con alambrado para delimitar propiedades diferentes. El aprovechamiento que este monte tiene actualmente es nulo, creciendo hierba, argomales y zarzas que dificultan el tránsito por el mismo, así como la visión de los restos arqueológicos. Es visible en superficie la roca natural del terreno en algunas zonas.

En sus proximidades se encuentran dos explotaciones de caliza, habiendo sido su entorno muy modificado, de modo que la pista rodada, que actualmente te deja al pie del poblado, y la única que es practicable en todo terreno, parece haber sido abierta recientemente por los responsables de esta explotación.

III. ERANSKINA

BABES-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Aplikazio eremua.

Babes-araubide honek bere baitan hartzen du Buruntzako Herrixka Gotortuaren Gune Arkeologikoaren Monumentu Multzo Kalifikatuak bere mugaketaren barruan dituen gune, aztarnak, egitura eta eraikuntza guztiak. Multzoa Andoain udalerrian dago, Gipuzkoako Lurralde Historikoan alegia.

2. artikulua.– Izaera loteslea.

Babes-araubide hau Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak bere 12. artikuluan agin-

ANEXO III

RÉGIMEN DE PROTECCIÓN

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.– Ámbito de aplicación.

Se someterán a las prescripciones del presente régimen de protección el conjunto de espacios, hallazgos, estructuras y edificaciones incluidas en la delimitación del Conjunto Monumental calificado de la Zona Arqueológica del Poblado fortificado de Buruntza, sito en el municipio de Andoain, en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Artículo 2.– Carácter vinculante.

El presente régimen de protección redactado en virtud de lo dispuesto en el artículo 12 de la Ley 7/1990,

tzen duenari jarraituz sortu da, eta Buruntzako Herrixka Gotortuaren Gune Arkeologikoa monumentu-multzo bezala Kultura Ondasun Kalifikatua izendatzeko izapidetzearen baitako da. Araubidea, aipatutako legearen 28.1 artikuluaren arabera, loteslea da hirigintza-planeamenduari begira.

3. artikulua.– Eremu-sailkapena.

Buruntzako Herrixka Gotortuaren Gune Arkeologikoaren babesa bermatuko duen erabilera- eta jarduera araubide orokorra ezartzerakoan, bi eremu bereizi behar dira:

1. eremua.– Aztarnategiak berez hartzen duen lur-zatia. Bere muga herrixka inguratzen duen gotortze-sistema nagusiarekiko paraleloan doan eta 10 m-ra dagoen lerroa da. Eremu honetan ikerketa arkeologikorako datu interesgarriak daude, bai eta metodologia arkeologikoaren bitartez berreskuratu beharreko aztarnak ere bai; gainera, ondasun higiezinen kasuan, dauden daudenean kontserbatu beharko dira.

2. eremua.– Aztarnategia balioesteko eta geroko arriskuetatik babesteko beharrezkoa den ingurune zabalagoa da. Bere muga ingurune osoan 400 m-ra dagoen sestra-kurbak markatzen duena da, ekialdean izan ezik, non hurrengo UTM koordenadetako puntu geografikoak elkartzen dituen lerroak limitea ezartzen duen: X: 580120,874 / Y: 4787903 (ipar-ekialdeko puntua); X: 580043,5 / Y: 4788025 (hego-ekialdeko puntua).

Eremu honetan, gainera, lekukotasun arkeologiko berriak ager litezke, herrixkari buruzko historiaurrea eta protohistoria hobeto ezagutzen lagundu dezaketenak.

4. artikulua.– Babes-maila.

1.– Buruntzako Herrixka Gotortuaren Gune Arkeologikoak duen babes-maila kontserbaziokoa da. Gure erkidegoko arkeologian azpimarragarria izateagatik eman zaio babes-maila hori, bere ingurua hondatuko luketen jarduerak saihestearren.

2.– Kontserbazio babes-mailak bermatu egingo du kontserbatu beharreko ondasunak kalterik ez jasotzea. Bertan burutu ahal izango diren jardueren helburua izango da babestutako ingurunean gizakiaren lehengo jarduera ulertzen lagundu dezaketen oraingo egiturak –edo lehengoen aztarnak– finkatzea edo zaharberritzea, ez besterik.

3.– Esparru gotortua bere landa-ingurura egokitzea sustatuko da, baldin eta hori egiteak ez badu esparru gotortua bera funtsean aldatzen. Bertan kultura, turismo eta aisiari lotutako ekimenak egitea sustatuko da.

de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, forma parte de la declaración de la Zona Arqueológica del Poblado fortificado de Buruntza como Bien Cultural Calificado con la categoría de Conjunto Monumental y tiene carácter vinculante para el planeamiento urbanístico de conformidad con lo dispuesto en el artículo 28.1 de la citada Ley.

Artículo 3.– Zonificación.

A la hora de establecer el régimen general de usos y actividades que asegure la protección del Poblado fortificado de Buruntza se establecen dos zonas:

Zona 1.– El área propiamente ocupada por el yacimiento, cuyo límite viene establecido por la línea que discurre a 10 m paralela al sistema de fortificación principal que rodea el poblado y exterior a este. Esta área conserva datos relevantes para la investigación arqueológica, así como restos que deberán recuperarse a través de la metodología arqueológica y que, siempre que se trate de bienes inmuebles, deberán ser preservados in situ.

Zona 2.– Aquella zona más amplia, que definimos como entorno necesario para poner en valor el yacimiento y evitar cualquier futuro riesgo para el mismo. Su delimitación viene dada por la curva de nivel del terreno que se encuentra a 400 metros de altura en todo su entorno excepto al este, donde el limite queda establecido por la línea que une los puntos geográficos de coordenadas UTM siguientes: X: 580120,874 / Y: 4787903 (punto al NE); X: 580043,5 / Y: 4788025 (punto al SE).

Así mismo, en esta área podrían localizarse nuevos testimonios arqueológicos que enriquecieran el conocimiento de la misma en estas tempranas etapas de la prehistoria y la protohistoria.

Artículo 4.– Nivel de protección.

1.– El nivel de protección que se otorga a la Zona Arqueológica del Poblado fortificado de Buruntza es el de conservación. Se le asigna este nivel de protección por tratarse de un testimonio significativo dentro del panorama arqueológico de la Comunidad que precisa de la concesión de un grado de protección que impida la realización de actividades que deterioren la zona.

2.– El nivel de protección de conservación garantizará el que no se lleve a cabo ningún tipo de actividad que deteriore el conjunto a conservar, salvo las encaminadas a consolidar y restaurar estructuras o cualquier rastro de éstas que sean de utilidad para entender la actividad pasada del hombre en el ámbito protegido.

3.– Se promoverá la integración del recinto fortificado en el entorno rural en que se sitúa, siempre que dicha integración no suponga una alteración sustancial del mismo. Se propiciarán los usos relacionados con actividades culturales, turísticas y de esparcimiento.

5. artikulua.– Hirigintza-planeamendua egokitzeko jarraibideak.

Buruntzako Herrixka Gotortuaren Gune Arkeologikoa monumentu multzoko kategoriarekin ondasun kalifikatu bezala jasota geratuko da Andoaingo udalen planeamendu-instrumentuen Kultura Ondarearen Katalogoetan. Era berean, gune hau antolatzerakoan, berariazko babes-araubide honetako arauen menpean geratuko dira planeamendu-instrumentuak eta, nolanahi ere, horiek onartzeko Kultura Sailaren oniritzia beharko da.

Instrumentu horiek Kultura Ondasunaren honako babes-araubide hau eratu baino lehenago idatzi izan badira, aldatu egin beharko dira, babes-araubide honen babes-neurriekin bat etorri ez edo horien aurka badoaz.

II. KAPITULUA
ERABILERA ETA JARDUEREN ARAUBIDE OROKORRA

Babes-araubide honetan zehazten diren erabilera eta jarduerak baino ez dira onartuko. Ondorengo arau hauetan aipatzen ez diren erabilera eta jarduerak araubidearen kontrakotzat joko dira.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak berariaz eta aldez aurretik baimenduta, eta betiere babes-araubide honetan xedatutakoaren mendean, beste erabilera eta jarduera batzuk onartuko dira, lurra iraultzen ez bada eta babestutako guneko arrasto arkeologikoak errespetatzen badira.

6. artikulua.– 1. eremuko erabilerak eta jarduerak.

1.– Irizpide orokorra.

Oro har, eta deskribatutako babes-araubideari jarraituz, aztarnategi arkeologikorako arriskugarriak edo kaltegarriak izan daitezkeen erabilerak eta jarduerak ez onartzea izango da irizpidea. Eta ez bakarrik lur gaineko zein lur azpiko eraikuntzak hondatzen dituzten jarduera eta erabilerak, baita gune arkeologikoaren hurrenkera historikoa aldatzen dutenak ere.

Adierazitako horrekin bat etorriz, eremu horietan onartutako erabilerek zientzia eta kultura izaerakoak izan beharko dute, bestelakorik ez. Beraz, proposatutako jarduerek sendotzea, artatzea eta/edo zaharberritzea izan beharko dute helburu, bai eta arkeologia indusketa ere.

Artículo 5.– Adecuación del planeamiento urbanístico.

La Zona Arqueológica del Poblado fortificado de Buruntza deberá ser recogida como Bien Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, en los Catálogos de Patrimonio Cultural de los instrumentos de planeamiento del municipio de Andoain. Del mismo modo, éstos se deberán ajustar, en lo que a la ordenación de esta zona se refiere, a las determinaciones especificadas en el régimen de protección elaborado de forma específica para su correcto mantenimiento y preservación. En todo caso, la aprobación de los mismos deberá contar con el informe favorable del Departamento de Cultura.

Si los instrumentos de planeamiento hubieran sido redactados anteriormente a la articulación de este régimen de protección del Bien Cultural que nos ocupa, éstos habrán de ser modificados en la medida en que no se ajusten o puedan contradecir cualquiera de las medidas de protección articuladas a través de este régimen de protección.

CAPÍTULO II
RÉGIMEN GENERAL DE USOS Y ACTIVIDADES

Únicamente se permitirán los usos y actividades definidos en el presente régimen de protección. Se consideran incompatibles con la protección otorgada aquellos usos y actividades no indicados en los preceptos siguientes.

No obstante lo señalado anteriormente, y con sometimiento a las prescripciones del presente régimen de protección, previa autorización expresa del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, podrán desarrollarse otros usos y actividades que no supongan la remoción del terreno ni la alteración de los restos arqueológicos existentes en la zona protegida.

Artículo 6.– Usos y actividades en la Zona 1.

1.– Criterio General.

En general, y de acuerdo con el nivel de protección definido previamente, el criterio a seguir en esta zona es el de no permitir ningún uso y actividad que pueda poner en peligro o deteriorar el yacimiento arqueológico, no sólo en lo que a destrucción de restos de inmuebles se refiere (tanto los hoy apreciables como los que permanecen ocultos en el subsuelo), sino también, cualquier actuación que suponga la alteración del orden histórico del depósito arqueológico.

De acuerdo con lo señalado anteriormente, en esta zona los usos permitidos serán exclusivamente científicos y culturales, y los tipos de intervención planteados serán únicamente el de la consolidación, conservación y/o restauración, así como la excavación arqueológica.

2.– Onartutako jarduerak.

Aurreko lerroaldean baimentzeko moduko jardueratzat adierazitako horiek honako definizio hauei lotu beharko zaizkie:

a) Arkeologia indusketa. Arkeologia indusketa deritze, Kultur Ondarearen 7/1990 Legearen 45.2 artikuluan jasotakoari jarraituz, sedimentuen estratigrafiari atxikiz arkeologia eta paleontologia hondakinak ikertzeko, dokumentatzeko eta erauzteko jarduerei. Nahitaezkoa da aztarnategiko hondakinak zaharberritzeko planei ekin aurretik egitea, horrela, horren historia ezagutu baitaiteke eta, bide batez, aztarnategia baloratzeko orduan nola jokatu jakin.

b) Zaharberritzea. Nekez mintza daiteke zaharberritzeaz baldin eta, aurretik, zaharberritu nahi den horri buruzko ikerlan zehatza egiten ez bada arkeologia metodologikoaren bitartez. Bada, ikerlan horren bitartez, herrixka gotortua berreraikitzeko eta baloratzeko oinarriak eta irizpideak zehaztu beharko dira, eraikitze historiarekin, errituekin eta okupazioarekin bat etorriz (ikerlanaren eta azterketaren emaitza), monumentu multzoari arrotz zaizkien irizpideak ezarri gabe, hain zuzen.

Interes handikoak diren edota artapen maila ona duten aztarnategi zatietatik hasiko dira zaharberritze lanak, arkeologia azterketak amaitu eta berehala. Beraz:

– Zaharberritze prozesu orok aztarnategia baloratzeko egitarau oso baten barruan egon beharko du. Horretarako, zuzendaritza talde horretan gaian aditu diren arkeologia profesionalak izan beharko dira, azken batean erabakigarriak izango baitira lanak arautuko dituzten irizpideak finkatzerakoan.

– Erabilitako teknikak eta materialak aztarnategian aplikatuko den edozein tratamendurekin itzulgarriak izan beharko dira, tratamenduaren aztarnarik gera ez dadin.

– Aztarnategia interpretatzeko beharrezkoa iritziz gero, aztarnategiko zati suntsituak berreraiki ahal izango dira eta berreraiki beharko ere, baina lan hori ez zaio gailenduko inola ere aztarnategiaren ikuspegiari. Nolanahi ere, berreraikuntzak herrixkaren jatorrizko egitura megalitikoari jarraitu beharko dio estu estuan, arkeologia azterketak ezarritako ildoekin bat etorriz. Horretarako, aurrena, jatorrizko materialak erabiliko dira, eta galduta badaude, hurrena, kolorean, itxuran, ehunduran eta abarretan antzekoak direnak. Hala eta guztiz ere, jarraitu beharreko arau nagusia jatorrizko egituraren eta berreraikitakoaren artean zeharo bereiztearena izango da, adibidez, bi zatiak bereiziko dituen marran kolore ezberdinak erabiliz.

– Era berean, egitura horietatik ezabatu ahalko dira, eta beharko ere, egitura horiek eraiki eta gerora jarritako elementuak, ez direlako jatorrizko erabilpenarekin

2.– Definición de las intervenciones permitidas.

Las intervenciones señaladas en el párrafo anterior como permitidas en la zona 1 deberán ser entendidas siempre de la forma que sigue:

a) Excavación arqueológica. Se trata, según se recoge en el artículo 45.2 de la Ley 7/1990, de Patrimonio Cultural Vasco, de la actividad de investigar, documentar y desenterrar o extraer restos arqueológicos y paleontológicos atendiendo a la estratigrafía de los sedimentos. Es imprescindible que sea llevada a cabo, previo a cualquier plan de restauración de los restos que constituyen el yacimiento, de modo que permita conocer la historia del mismo y siente las bases que justifiquen una u otra actuación a la hora de plantearse disyuntivas en la puesta en valor del yacimiento.

b) Restauración. Nunca se podrá hablar de restauración si previo a esta intervención no se da un estudio detallado de aquello que se pretenda restaurar, a través de la aplicación de la metodología arqueológica. Este estudio deberá sentar las bases y establecer los criterios que aseguren la fiel reconstrucción y puesta en valor del poblado fortificado, de acuerdo a su historia constructiva y de ocupación (resultado de tal análisis e investigación), evitando imponer criterios ajenos a los mismos.

Se llevará a cabo la restauración de aquellas partes del yacimiento que presenten elevado interés e importante grado de conservación, una vez se halla finalizado el estudio arqueológico de las mismas, de modo que:

– Cualquier proceso de restauración se integrará dentro de un programa global de puesta en valor del yacimiento, para cuya realización se deberá contar en el equipo director con especialistas en la materia, contando entre ellos con profesionales de la arqueología, quienes serán determinantes a la hora de establecer los criterios que rijan las obras a realizar.

– Las técnicas y materiales utilizados serán tal que cualquier tratamiento aplicado sobre el yacimiento deberá ser de carácter reversible, sin que quede huella del mismo.

– Podrá y deberá llevarse a cabo la reconstrucción de partes del yacimiento destruidas, siempre que se entienda preciso para la lectura e interpretación del mismo, evitando sin embargo, que el grado de reconstrucción sea tal que domine la visión del yacimiento. En cualquier caso, esta reconstrucción deberá ser fiel a la estructura originaria del poblado, de acuerdo a las pautas marcadas por el estudio arqueológico. Para ello se reutilizarán los materiales originales o, en caso de pérdida, materiales que se asemejen a ellos en color, forma, textura etc. Sin embargo, la regla principal a respetar será la de establecer una clara diferenciación entre la parte de la estructura original y la reconstruida, utilizando material de diferente coloración (por ejemplo) que dibuje la línea de separación entre ambas partes.

– Igualmente, se podrá y deberá contribuir a eliminar de estas estructuras aquellos elementos que hallan sido impuestos con posterioridad a su construcción y que no

lotzen, baizik eta denboran geroxeagoko erabilerei dagozkienekin. Hortaz, soilik mantenduko dira baldin eta kokatuta dauden inguruneko usadioak ezagutzera emateko aztarnategi zatitzat jotzen badira. Hala dagokionean, behar den moduan arrazoitu beharko da.

c) Sendotzea eta kontserbatzea. Arkeologia aztarnategietako egiturak, materialak, etab. (harresia, gela-hormen hondakinak, zutoin-zuloak, materialak...) babesteko jarduerak, tratamenduak eta esku-hartzeak dira. Elementu horiek indartu egiten dituzte, bai eta beren sendotasuna bermatu ere, narriadura saihestuz eta ikusgarriagoak eginez. Horrela, ulerterrazago egiten dituzte eta horien zabalkundea hedatu.

Era berean, herrixkan egin beharreko ekintzak egituratzen dituzten sendotze- eta kontserbatze-egitarauak sustatu beharko dira, alegia, aztarnategia babestea bermatuko duten egitarauak, hala arkeologia indusketa prozesua gertatu aurretik, gertatu bitartean nola gertatu ostean.

Egitarau horiek gaian adituak direnek gauzatu beharko dituzte, hori bai, arkeologia profesionalen aholkuak lagun dituztela. Halaber, prozesu horiek itzulgarriak izan beharko dute beti.

3.– Ondasunaren 1. eremuan baimendutako erabilerak eta jarduera ez-eraikitzaileak.

1) Zientzia-jarduerak, eta hondakinak dauden daudenean mantentzeko lanak.

Aztarnategiko lurrak iraultzeko jardueren artean, zientzia-ikerketara bideratutakoak baino ez dira onartuko eta, nolanahi ere, lan horiek egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendutako egitasmoa aurretik dela.

Bada, eremu horretako zientzia-jarduerek (arkeologia indusketak, azterketak, ikerlanak etab.) aztarnategia bere osotasunean barnebilduko duen egitarau arrazional baten barruan egon beharko dute, eta horrez gain, aztarnategia hobeto ezagutzeko lagundu beharko dute, gerora begirako balorazioa ahalbideratzeko. Hortaz, eremu horretan edozein jarduera burutuz gero, garbi izan beharko da arkeologia metodologiaren bidez aurkitutako arkeologia ondasun higiezinak, dauden toki berean babestu beharko direla.

Burutzen den egitasmoak aztarnak sendotu, bertan kontserbatu eta zaharberritzea izango du xede, bai orain lur azalean diren aztarnak bai induste-lanen bidez ateratzen direnak, degradazio-prozesuak saihesteko edo ahalik eta gehien moteltzeko.

2) Kultura-jarduerak eta aztarnategia ezagutzera emateko moduak.

responden a su uso original, sino que son resultado de reutilizaciones de cronología posterior. Únicamente se mantendrán cuando se entiendan parte integrante del yacimiento que contribuyan a mejorar el conocimiento de las actividades tradicionales desarrolladas en el entorno en el que se encuadran, en cuyo caso deberá ser debidamente razonado.

c) Consolidación y conservación. Son aquellas actuaciones, tratamientos e intervenciones más inmediatas encaminadas a la preservación de las estructuras, materiales, etc. de los yacimientos arqueológicos (muralla, restos de muros de habitaciones, agujeros de poste, materiales etc.), fortaleciéndolos y asegurando su solidez, evitando así su deterioro y contribuyendo a mejorar su visibilidad y facilitar su entendimiento y difusión.

Deberán promoverse programas de consolidación y conservación en los que se articulen las actividades a llevar a cabo en el poblado, tal que aseguren la preservación del yacimiento, antes, durante y después de ser sometidos a procesos de excavación arqueológica.

Estos programas deberán ser articulados por especialistas en la materia, contando siempre con la asesoría de profesionales de la arqueología. Igualmente, estos procesos deberán ser siempre reversibles.

3.– Usos y actividades no constructivos permitidos en la Zona 1.

1) De las actividades de carácter científico y mantenimiento de los restos «in situ».

De las actividades que supongan movimientos en el terreno, únicamente se permitirán aquellas que estén enfocadas a la investigación científica, y en cualquier caso, siempre que se cuente con proyecto previo a éstas, autorizado por la Diputación Foral de Gipuzkoa para su ejecución.

Las actividades de carácter científico que se vayan a desarrollar dentro del área (excavaciones arqueológicas, análisis, estudios etc.) deberán estar encuadradas dentro de un programa racional de estudio global del yacimiento y deberán contribuir a mejorar su conocimiento para facilitar la futura puesta en valor del mismo. Cualquier actividad a desarrollar en éste deberá contar con la premisa de que los restos arqueológicos de carácter inmueble, descubiertos a través de la metodología arqueológica en esta zona, deberán ser preservados en el lugar de aparición de los mismos.

Se llevará a cabo un proyecto encaminado a la consolidación, conservación «in situ» y restauración de los restos que se observen sobre el nivel del suelo así como de aquellos que, resultado de procesos de excavación, queden puestos al descubierto, asegurando de este modo su mantenimiento y preservación frente a procesos de degradación.

2) De las actividades de carácter cultural y la difusión del yacimiento.

Kultura-jarduerak garatu eta bultzatu ahal izango dira, arrastoak kontserbatzeko kaltegarriak ez diren artean. Horien bidez aztarnategiak leku eta ondare moduan dituen baloreak ezagutzera emango dira. Babestutako gunea kultura-ibilbideetan sartu ahal izango da eta, horregatik bisitariak hartzeko egokituko da: ondasuna sendotzeko egitasmo txikiak burutuko dira, hori erakusteko modu egoki eta ulergarriak erabiliko dira, guneko elementuren bat berreraikiko da eta abar.

Buruntzako Herrixka Gotortuaren Gune Arkeologikoan horrelako jardueraren bat aurrera eramateko, ezinbestekoa izango da aldez aurretik Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren baimena izatea, eta hori jasotzeko, kontserbazioa bermatu behar da. Bestalde, arkeologiako aditu batek kontrolatu, zuzendu eta ikuskatuko du jarduera.

4.– Ondasunaren 1. eremuan baimendutako erabilerak eta jarduera eraikitzaileak.

Lekua babesteko, ikertzeko edo kultura zabaltzeko ezinbestekoak diren eraikuntzak eta instalazioak baino ez dira onartuko. Horietako edozein egin aurretik, arkeologo aditu batek beharrezkotzat jo behar du, aztarnategia ikertzeko eta bere balioa azpimarratzeko egitasmo orokor bat eginda. Edonola ere den, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena beharko da lana gauzatu aurretik.

7. artikulua.– 2. eremuko erabilerak eta jarduerak.

1.– Irizpide orokorra.

Eremu honetako irizpide nagusia da hau bezalako ingurune batean ohikoak diren erabilera eta jarduerei eustean, salbu eta arriskuan jar dezaketenak aztarnategiaren kontserbazioa edo inguruarekiko integrazioa. Ingurunean ezartzen diren erabilera guztiek ondasun kalifikatuaren kontserbazioa errespetatu beharko dute, ingurunea bera ondasun horren zati den aldetik, halaxe xedatzen du-eta Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen 23. artikuluak.

2.– Ondasunaren 2. eremuan baimendutako erabilerak eta jarduerak.

Hau bezalako ingurune batean ohikoak diren nekazaritza eta abeltzaintza tradizionalarekin loturiko erabilera eta jarduera guztiak baimenduko dira. Debekatuta daude, ordea, erauzketa-erabilerak, zuhaitzak landatzea, bai eta tamaina handiko instalazio elektriko edo telekomunikazioetakoak, zeren eta aztarnategia arriskuan jar baitezakete eta, gainera, espediente honen bidez babestu nahi den ingurumariaren irudiari kalte egin bailiokete. Jarduera horiek guztiek errotik aldatuko lukete herrixka gotortua kokatuta dagoen eremuaren eitea, eta goitik behera oztopatuko lukete herrixka modu egokian interpretatzeko lana.

Se podrán desarrollar y promover aquellas actividades de carácter cultural compatibles con la conservación de los restos del yacimiento, actividades tendentes a la difusión y conocimiento del lugar y sus valores patrimoniales. El área protegida podrá incluirse en itinerarios culturales, adaptando la zona a la posibilidad de visitas con pequeños proyectos de consolidación, exposición adecuada e inteligible, así como reconstrucción de algunos espacios puntuales dentro del mismo, etc.

Cualquiera de estas actividades culturales a desarrollar dentro de los límites de la Zona Arqueológica del Poblado fortificado de Buruntza, podrá llevarse a cabo únicamente previa autorización del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que asegure la compatibilidad con la conservación del yacimiento, bajo el estricto control, dirección y supervisión de un profesional de la Arqueología.

4.– De los usos y actividades constructivos e instalaciones permitidos en la Zona 1.

Únicamente se autorizarán los usos y actividades constructivos que vayan dirigidos a la protección del propio espacio y aquellas edificaciones e instalaciones que estén destinadas y se entiendan precisas para la investigación y/o difusión cultural. Todas ellas serán permitidas únicamente si un proyecto global de investigación y puesta en valor del yacimiento, suscrito por un técnico arqueólogo competente, así lo estima conveniente y necesario. En todo caso, previo a su ejecución, deberá ser autorizado por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Artículo 7.– Usos y actividades en la Zona 2.

1.– Criterio general.

El criterio general en esta zona es el mantenimiento de los usos y actividades propios de la explotación tradicional de un entorno como este, a excepción de aquellos que puedan poner en riesgo la conservación del yacimiento y su integración con el entorno en el que se instala. Todos los usos a que se destine el entorno, como parte integrante del bien calificado que es, deberán garantizar su conservación, tal y como señala el artículo 23 de la Ley 7/1990, de Patrimonio Cultural Vasco.

2.– Usos y actividades permitidos en la Zona 2.

Se permiten todos los usos y actividades propios de la explotación agropecuaria tradicional de un entorno como este. Quedan sin embargo expresamente prohibidos los usos de carácter extractivo, de repoblación forestal así como la colocación en el área de infraestructuras e instalaciones eléctricas y de telecomunicación de gran calibre, dado que pueden poner en serio riesgo la conservación del yacimiento, así como por atentar contra la imagen del entorno que se pretende preservar a través de este expediente. Todas estas actividades señaladas suponen una importante y drástica modificación de la fisonomía del área dentro de la que se localiza el poblado fortificado y el desarrollar estos usos podría suponer la absoluta distorsión del entorno necesario para su correcta interpretación.

Edonola ere, eremu honetan edozein erabilera edo jarduera baimendu baino lehen, nahitaezkoa izango da baldintza batzuk betetzea:

a) Prospekzio-programa bat egin beharko da proiektuak ukitutako eremuan, gaur egun oraindik aurkitu ez diren historiaurreko edo protohistoriako okupazioekin loturiko arkeologia-aztarnategi berriak aurkitzeko helburuarekin.

Aztarna arkeologiko berririk aurkitzen bada, berriz, proposatutako proiektuak horiek ez dituela ukituko bermatu beharko da. Horretarako, proposatutako proiektuaren ezaugarrien eta aurkitutako aztarnen garrantziaren arabera, kasuan-kasuan egokien jotako neurri zuzentzaileak hartuko dira. Modu horretara, posible izango da aztarnategia babestea ahalbideratzen duten aldaketak proiektuan sartzea planteatzea, edo proiektuaren hedaduraren araberako indusketari hasiera ematea.

b) Artikulu honen a) idatz zatian adierazitakoa betetakoan, eta eremuan gauzatu nahi den jarduerari baimena eman eta gero, eremu horietan onartutako edozein jarduera Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuari jakinarazi beharko zaio, jarduerei ekin baino hamabost lehenago. Kultura Departamentuak egoki baderitzo, berriz, jarduera horren arkeologia kontrola hartu ahal izango du bere gain, monumentu multzo horretako kultur ondasunak ukituta geratuko ez direla bermatuz.

III. KAPITULUA
BESTELAKO XEDAPENAK

8. artikulua.– Gizarte-interesa.

Gizarte interesekotzat joko da Andoaingo Buruntzako Herrixka Gotortuaren eremua (Gipuzkoa), induskeeta prozesu sistematikoen ondorioz lurrazpiko egiturak eta arkeologia hondakinak agerrarazten direnean, Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen 21. artikuluarekin bat etorriz, beroriek sendotzeko, zaharberritzeko eta baloratzeko ikusgai jartzea egokitzat jotzen bada.

En todo caso, en esta área, previo a la autorización de cualquier uso y ejecución de cualquier actividad, deberán cumplirse algunas condiciones:

a) Deberá llevarse a cabo un programa de prospección del área afectada por el mismo, con vistas a localizar nuevos restos de ocupación del territorio de etapas prehistóricas y protohistóricas, hoy todavía no detectados.

En caso de localización de nuevos testimonios arqueológicos deberá asegurarse la no afección a éstos por el proyecto planteado, estableciendo las medidas correctoras estimadas como más oportunas en cada caso, en función de las características del proyecto planteado y la entidad de los restos descubiertos. Así, se podrán plantear desde cambios en el proyecto que lo hagan viable con la preservación del yacimiento hasta abordar la excavación en extensión del mismo.

b) Cumplimentados los requisitos exigidos en el apartado a) de este artículo, una vez sea autorizada la actividad que se pretenda desarrollar en la zona, deberá ser notificada su ejecución quince días antes del inicio de la misma al Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, quien en caso de estimarlo oportuno, podrá llevar a cabo el control arqueológico de dicha actividad, asegurando la no afección de los valores culturales de este Conjunto Monumental.

CAPÍTULO III
OTRAS DISPOSICIONES

Artículo 8.– Del interés social.

El área del Poblado fortificado de Buruntza, en Andoain (Gipuzkoa), en la que, tras haber sido sometida a procesos de excavaciones sistemáticas se pongan al descubierto estructuras y restos arqueológicos que permanecen en el subsuelo y se entiendan de interés mantenerlos visibles para su consolidación, restauración y puesta en valor, de acuerdo con el artículo 21 de la Ley 7/1990, de Patrimonio Cultural Vasco, se considerara de interés social.